

Lehen inpresioa da balio duena

Ikasbiletik hartua eta IKAn moldatua

Oso denbora gutxi behar izaten dugu pertsona bati buruzko iritzia egiteko. Azterketa horretan zer elementuk hartzen duten parte azaldu du aditu batek elkarrizketa batean.



1- Adituaren iritzia

Entzun irratsaioa eta esan ondorengo esaldiak bat datozen ala ez bertan esan dutenarekin.

Lehen inpresioa begiek egiten duten azterketa azkar bat da.

- Egia Gezurra

Lehen inpresio hori gure barruan sortzen den mekanismo inkontziente bat da.

- Egia Gezurra

Garai batean garrantzitsua izan zen lehen inpresioa sortzen duen mekanismo psikologiko hori.

- Egia Gezurra

Epaiketa hori egiteko gure garunak 30 segundo behar ditu gutxienez.

- Egia Gezurra

Gure garunak ematen diogun informazio guztia jasotzen du –itxura, ahotsa...– eta loturak egiten ditu gero epaitzeko.

- Egia Gezurra

Lehenengo harremanetan, ez da egokia besteari zuzen begietara begiratzea, urduri jarri dezakegulako.

- Egia Gezurra

Garunak bere azterketa egiterakoan, honako zein elementuri ez dio erreparatzen?

- Transmitzen dugun segurtasunari
 Itxurari
 Mugimenduei

Itxura ona emateko, adituek aholkatzen dute...

- eskurik ez ematea konfiantza pixka bat izan arte.
 eskua suabe eta denbora motzean ematea.
 bestearen eskuari ganoraz ematea.

Pertsona batez egiten dugun lehenengo inpresio hori...

- betirako da eta zaila da aldatzen.
 denborarekin aldatu egiten dugu, zorionez.
 gerora batzuek aldatzen dute eta beste batzuek ez.

2- Itxura garrantzitsua da

Orain gaiarekin lotutako lexikoa aztertuko dugu. Elkarrizketatik hartutako esaldi batzuk ekarri ditugu hona, baina hitz horiek kendu ditugu zuk jartzeko. Osatu esaldi hauek hitz egokiena aukeratuta.

1. Lehen inpresioa egiten dugun _____ azkar bat da pertsona berri bat ezagutzen dugunean.
2. 30 segundo da _____-ak erabiltzen duen denbora azterketa egiteko.
3. Horregatik esaten dugu garrantzitsua dela aurpegiarekin zer _____ jartzen dugun, edo _____-a nola erabiltzen dugun.
4. Gaur egun gure janzkerak edo gure _____-k asko esaten du.
5. Oso inportantea da _____, besteen begietara begiratzea
6. Asko laguntzen du _____ batekin hitz egitea.
7. Beraz, _____ behar baldin badugu, ez ukitu bakarrik, baizik eta sendo hartu.
8. Lehen inpresioarekin geratu edo ez zerikusirik handia dauka zure _____-rekin.
9. Jakina, _____-a baldin bazara, gai honetan ere horrela jokatuko duzu.

**eskua eman / ahots / izaera / burmuin / epaiketa
itxura / zorrotz / begirada / jestu / irribarre**

3- Lehen inpresioarekin gelditzen al zara?

Pentsatu pixka batean eta idatzi zure iritzia gai honi buruz. Gero klasean komentatu idatzitakoa ikaskideekin. Galdera hauek baliagarriak izan ahal zaizkizu:

- 1- Pertsona bat ezagutzen duzunean, zeri erreparatzen diozu? Janzkerari, itxurari, begiradari, irribarreari, izaerari...
2. Lehen inpresioarekin geratzen zara edo gerora aldatu egiten duzu?

Idaztean, holako esaldiak erabili ditzakezu:

- Nik begiradari ematen diot garrantzia, bere begiradak zer esaten didan.
- Nik izaerari erreparatzen diot, ea lasaia den....
- Nik uste dut lehen inpresioa ez dela hain garrantzitsua. Askotan gertatzen zait hasieran pentsatzea pertsona bat, adibidez, oso serioa dela eta gero ez da horrelakoa.

.....

.....

.....

.....

1- Adituaren iritzia

Lehen inpresioa begiek egiten duten azterketa azkar bat da.

Egia Gezurra

Lehen inpresio hori gure barruan sortzen den mekanismo inkontziente bat da.

Egia Gezurra

Garai batean garrantzitsua izan zen lehen inpresioa sortzen duen mekanismo psikologiko hori.

Egia Gezurra

Epaiketa hori egiteko gure garunak 30 segundo behar ditu gutxienez.

Egia Gezurra

Gure garunak ematen diogun informazio guztia jasotzen du –itxura, ahotsa...– eta loturak egiten ditu gero epaitzeko.

Egia Gezurra

Lehenengo harremanetan, ez da egokia besteari zuzen begietara begiratzea, urduri jarri dezakegulako.

Egia Gezurra

Garunak bere azterketa egiterakoan, honako zein elementuri ez dio erreparatzen?

Transmitzen dugun segurtasunari

Itxura ona emateko, adituek aholkatzen dute...

bestearen eskuari ganoraz ematea.

Pertsona batez egiten dugun lehenengo inpresio hori...

gerora batzuek aldatzen dute eta beste batzuek ez.

2- Itxura garrantzitsua da

1. Lehen inpresioa egiten dugun (**epaiketa**) azkar bat da pertsona berri bat ezagutzen dugunean.
2. 30 segundo da (**burmuin**)ak erabiltzen duen denbora azterketa egiteko.
3. Horregatik esaten dugu garrantzitsua dela aurpegiarekin zer (**jestu**) jartzen dugun, edo (**ahots**)a nola erabiltzen dugun.
4. Gaur egun gure janzkerak edo gure (**itxura**)k asko esaten du.
5. Oso inportantea da (**begirada**), besteen begietara begiratzea
6. Askok laguntzen du (**irribarre**) batekin hitz egitea.
7. Beraz, (**eskua eman**) behar baldin badugu, ez ukitu bakarrik, baizik eta sendo hartu.
8. Lehen inpresioarekin geratu edo ez zerikusirik handia dauka zure (**izaera**)rekin.
9. Jakina, (**zorrotz**)a baldin bazara, gai honetan ere horrela jokatuko duzu.